

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4480

*EBAZPENA, 2023ko irailaren 20koa, Kulturako sailburuordearena, 2023ko irailaren 11ko Ebazpena zuzentzen duena. Ebazpen horren bidez, 2023ko ekitaldian arte eszenikoak ekoizteko emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratzen da.*

Kulturako sailburuordearen 2023ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez, 2023ko ekitaldian arte eszenikoak ekoizteko emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratu zen.

Ebazpen horren I. eranskinean, hain zuzen, zirkuitu itunduko ekoizpenak egiteko dirulaguntza jaso duten eskatzaileen zerrenda ageri da.

Akatsak aurkitu dira aipatutako I. eranskinean, 2023ko irailaren 11ko Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2023ko irailaren 19an) argitaratu ondoren.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikulua ezartzen duenez, «Argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bidez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta horiek zuzentzeak dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen badu».

Horiek horrela, eta indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz:

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpena ematea Kulturako sailburuordearen 2023ko irailaren 11ko Ebazpenaren I. eranskina zuzentzeko. Ebazpen horretan, 2023ko ekitaldian arte eszenikoak ekoizteko emandako dirulaguntzen zerrenda jasotzen da. Zuzenketa hauek egin dira:

Ebazpen horren I. eranskinean, 2023/4328 (2/8) orrialdean,

honako hau dioen tokian:

Eskatzailea	Espediente zk.	Dirulaguntza jasoko duen ekintza	Dirulaguntza
Adriana Bilbao Zarraonandia	013-PE2-2023	Amores	24.400,00
Blanca Arrieta Albandoz	021-PE2-2023	Unseen Landscapes (still and moving)	23.780,00
Denis Martinez Roque	019-PE2-2023	Gravedad Zero	25.000,00
Dimegaz Kultur Elkartea	039-PE2-2023	Er(h)ori	25.000,00
Maitane Sarralde Ussia	036-PE2-2023	Madre perla	16.250,00
Node Kultur Elkartea	030-PE2-2023	Me arrepiento	14.000,00
Oihane Varela Aizpurua	003-PE2-2023	Plañideras-Historia de convertir una tragedia en producto	19.740,00
Olatz Itziar De Andres	025-PE2-2023	Time is a muscle	21.025,00

2023ko irailaren 29a, ostirala

honako hau esan behar du:

Eskatzailea	Espediente zk.	Dirulaguntza jasoko duen ekintza	Dirulaguntza
Adriana Bilbao Zarraonandia	013-PE2-2023	Amores	23.863,00
Blanca Arrieta Albandoz	021-PE2-2023	Unseen Landscapes (still and moving)	23.780,00
Denis Martinez Roque	019-PE2-2023	Gravedad Zero	24.247,00
Dimegaz Kultur Elkartea	039-PE2-2023	Er(h)ori	24.396,00
Maitane Sarralde Ussia	036-PE2-2023	Madre perla	15.881,00
Node Kultur Elkartea	030-PE2-2023	Me arrepiento	13.635,00
Oihane Varela Aizpurua	003-PE2-2023	Plañideras-Historia de convertir una tragedia en producto	19.220,00
Olatz Itziar De Andres	025-PE2-2023	Time is a muscle	20.830,00

Bigarrena.– Gainerako jarduketetan ezarritakoa mantentzea Kulturako sailburuordearen 2023ko irailaren 11ko Ebazpenean, non jasotzen baita 2023ko ekitaldian arte eszenikoak ekoizteko emandako dirulaguntzen zerrenda.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 20a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.